ASTEKARIA - 2011ko urtarrilaren 28an - XV. urtea - Usurbil, 435. zenbakia

www.noaua.com

# Noaua !!



Sahararen aldeko kanpaina asteburu honetan amaituko da



## Herri Eskola,

# Aginagaren bihotza


IRATXO
ZURE ITALIARRA
943 36 91 35
BORDABERRI 5, Usurbil
Orain gauetan
etxera eramaten dizuegu!!
Pizzak, lasainak, sarrerak,
risottoak,pasta,entsaladak...
zeliakoentzat ere!!!


FUNERARIA
GONZALEZ
EHORZTETXEA
munalurra 8, Usurbil
943 36 21 63
660 388 652 - 608 16 77 92
·Zerbitzu azkarra eta etengabea 24h
·BEILATOKI GUZTIETAN zerbitzuak
·ERRAUSKETA eta errauts-kutxak
·Ospitale zentru eta egoitzetan zerbitzuak
·ASEGURU konpaini GUZTIAK, deiguzu
zuzenean denetaz arduratzen gara
·Lekualdaketak, eskelak, urteurrenak...
·Asegururik EZ duten familientzat
Usurbilgo beilatokia DOAN izango da
gure eskutik
info@funerariagonzalez.es
www.funerariagonzalez.es


osu
serigrafia
serigiosu@serigrafiaiosu.com
·kamiseta inprimategia
·pegatinak
·iragarki nahiz industri serigrafia
·laneko arropak
·enpresa opariak
·boligrafoak
·txiskeroak
·laser markaketak...
www.serigrafiaiosu.com
Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL


DIGITAL+
antenas
Telemar
1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.
Orain Usurbilgo erdigunean
Ltd-ko kanal berri hauek
ikusteko aukera ...
8 gipuzkoa
teledonosti
hamaika
ikusteko bizitzeko
elkano kalea 13 HERNANI
Tlfnoa. 943 55 33 99
info@antenastelemar.com
tdt

Albistea iruditan !!

# Patxi Uranga eta Olatz Lasagabaster epaitu dituzte

Patxi Uranga, Olatz Lasagabaster eta Ainara Vazquezen aurkako epaiketa egin zen aurreko astean Espainiako Auzitegi Nazionalean. 2009an atxilotuak izan ziren Usurbilen eta Astigarragan; tratu txarrak salatu zituzten inkomunikazio aldian. Olatz Lasagabasterrek eta Patxi Urangak preso jarraitzen dute, eta Ainara hilabete gutxira aske geratu zen, bermea ordainduta. Olatz eta Patxiren aurka, 18 urteko zigor eskaera egin du Fiskaltzak eta Vazquezen aurka, 7 urtekoa. Hirurei elkartasuna eta animoak emateko asmoz, 50 lagun inguru hurbildu ziren Auzitegi Nazionalera, tartean hainbat lagun eta senide usurbildar.



USURBIL ETA ORIOTIK HAINBAT LAGUN ETA SENIDE BERTARATU ZIREN. ARGAZKIA BIDEAN EGINDAKO ATSEDENALDI BATEAN ATERATAKOA DA.

## Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Telefono zenbakia: 943 36 03 21

E-posta: elkartea@noaua.com

www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarregi ikastola.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

330, LANGABETU KOPURUA — 5. OR.

KRONISTAK KALEJIRAN — 6. OR.

AGINAGAKO HERRI ESKOLA — 9. OR.

“GIPUZKOAREN JATORRIA” DVD-A — 10. OR.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARAZ

Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE
Obaba kalea 29 · ASTEASU
✆ 943 69 68 52 · 620 800 186

TAXI
677 37 34 66
943 36 69 69
Jose Etxabe (24h) USURBIL

BENTA TABERNA
Oilasko erreak
Ogitartekoak
San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05



IDOIA TORREGARAI

# Parra

Azken aste hauetan lanetik etxerako bueltan algara batean joaten naiz. Nahiz eta egun gogorra edo pattala eduki, kotxeko irratia piztu eta Alkainek eta bere koadrilak barrea ateratzen didate. Aldameneko kotxekoak batean baino gehiagotan geratzen zaizkit begira “hau ziharo juna do” esanez bezala. Mundialak iruditzen zaizkit.

Izan ere, ze earra den parra egitea, ezta? Haur txikiak dituzuenok ziur dakizue parra egitearen abantailak zeintzuk diren, Mari Kalanbrek oso ondo azaltzen baititu Pirritx eta Porrotxen azken diskoan. Baina Pupu eta Loreren “mundu zoragarritik” aparte bizi zaretenontzat, azalduko dizuet egunean gutxienez hiru minutuz barre egiten baduzue, zuen bizitza kalitatea asko hobetuko duzuela. Zergatik? Lehenik eta behin, bat-batean eragiten duen plazerragatik, fisikoa zein psikikoa. Algara botatzen dugunean, endorfinak (zoriontasunaren hormonak) martxan jartzen ditugu gure buruan. Sistema immunologikoa ere indartzen du, eta minaren aurka ere lagungarri da. Parra egitean adrenalina dantzan jartzen dugu, neurri handi batean sormena eta irudimena pizten digun hormona. Zerrenda ez da hemen bukatzen, baina, luze joko luke denak idaztea. Horretarako dago San Google bilatzailea, aizue.

Eta zenbat par desberdin dauden. Algara on bat egiteak ekartzen duen poza gauza gutxirekin dago konparatzea. Malkoekin bustitako parra ere badago, ziurrenik aurreko algararekin batera agertzen dena. Eutsi ezin dena parra dago, desegokia den toki edo momentuan sortzen dena, une berean plazerra eta sufrimendua sortarazten diguna. Par konplizeak daude, norbaitengandik oso gertu gaudela esaten digutenak. Par txoroak ere badaude, zergatik egiten dugun ere ez dakigunak. Par zuriak ere existitzen dira, sinesten ez ditugunak. Par urduriak, kontajiosoak, ironikoak, isekariak, irriparrak... gutako bakoitzak parra egiteko modu berezia du, bereiztu egiten gaituena eta, ia beti, zoriontsu egiten gaituena.

“Gizakiak hainbeste sufritzen du munduan, ezen parra asmatu behar izan zuela”, esan zuen Nietzschek. Nik, argi daukat, kotxeko irratia pizten jarraituko dut.

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Joxe Piñas - Unai Agirre - **Idoia Torregarai**

## Gernika Usurbil taldea osatu da, Gernikako Ituna gizarteratzeko xedearekin

**Iazko irailean, Euskal Herriko ia 30 alderdi politiko, sindikatu eta gizarte erakundek "Bake bidean aterabide demokratikoen Akordioa" izenpetu zuten Gernikan. Urtarrilaren 2an, itun hau babesteko hainbat herritar elkartu ziren frontoian. Orain, Gernika Usurbil izeneko taldea osatu dute, ituna gizarteratzeko xedez.**

"Akordio hau gizarteratzeko, gure ahaleginak bideratzeko, Usurbilgo arlo zein sentsibilitate desberdineko 45 herritarrek Gernika-Usurbil (GU) taldea eratu dugu", hala adierazi digute ohar baten bidez.

Blog berria ere sortu dute: "gurekin harremanetan jarri nahi baduzue e-posta helbide honetara idatzi dezakezue:

gernika@usurbil.com



PASA DEN OSTEGUNEAN ELKARRETARATZEA EGIN ZUTEN.

Eta blogean bertan ere: http://www.blogak.com/gernika_usurbil. Era berean Facebook eta Twitter-en ere aurkituko gaituzue".

Pasa den larunbatean Iruñean egin zen manifestaziorako autobusa antolatu zuten Gernika-Usurbil taldekoek. Eta elkarretaratze bat ere egin zuten pasa den ostegunean, Mikel Laboa plazan.

## Otsailaren 3an, Andatza Mendizale Taldearen batzarra

Artzabalen izango da batzarra, otsailaren 3an osteguna, arratsaldeko 19:00etan. Gai zerrenda hauxe izango da:

-Mendi Elkartearen egoera.
-Talde berriaren aurkezpena.
-Egoera ekonomikoa.
-2011ko ekitaldiak eta irteerak.
-Eskari galderak.

Bazkideei gutuna bidaliko zaie batzarraren berri emateko eta honen berri ere izango elkartearen web orrian, www.andatza.com helbidean.

Bestetik, aurrerantzean ikur berri hau izango du elkarteak.

# 330 langabetu

## 2010eko abenduko datua da, Eustat-ek eman berri duena

**Joan den abenduari dagozkion langabezia-datuak argitaratu berri dira. Enplegua eskuratzeko erregistratuta dauden langabetuak, guztira, 135.961 ziren Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Herriz herriko datuen berri ere ematen du Eustat-ek. Usurbilen, 330 ziren 2010eko abenduan, errejistratuta zeuden herritarrak.**



DUELA BI URTE BEZALAXE, INGEMARREKO LANGILEEN ETA ZUZENDARITZAKOEN ARTEAN GORABEHERAK IZAN DIRA ASTE HONETAN.

Aipagarria da, adin tarteei begira desoreka nabarmenak daudela. Langabetu kopuru altuena 25-44 urte artean dago. Aldiz, gizon eta emakumezkoen langabetu kopurua orekatua dela nabari daiteke, nahiz datuotan agertzeko erregistratua egon behar dela azpimarratu behar den.

### Hiru urtetan, ia bikoiztu egin da

Langabezia tasaren harira, Usurbilgo Hamaikabat-ek bere web orrialdean aipatu duenez, 2007ko martxoan 167 langabetu zeuden Usurbilen, eta 2010eko martxoan, 309.

Datu hori errealitate gogorraren ispilu dela dio Hamaikabat-ek eta, kritika ere egiten dio udal gobernuari, udal batzordeetan gai honi minuturik ez zaiola eskaintzen adieraziz.

### Genero aldetik ez dago aldaera handirik

**Emakumeak:**
25 urtetik behera: 9 langabetu.
25-44 urte artean: 87.
45 urte edo hortik gora: 65.

**Gizonak:**
25 urtetik behera: 10 langabetu.
25-44 urte artean: 90.
45 urte edo hortik gora: 69.

**Sektoreka:**
Nekazaritzan: 2 langabetu.
Industrian: 90 langabetu.
Zerbitzuetan: 194 langabetu.

**Aurreko enplegurik gabe:**
7 herritar.

**Informazio iturria:** Eustat.

### Hainbat mobilizazio greba egunerako

Euskal sindikatuen gehiengoak greba orokorra deitu du ostegun honetarako, urtarrilaren 27rako. Hainbat mobilizazio iragarri dira. Goizez, manifestazioa egingo da Donostian. Eskualdeko langileei deia egin zaie Donostiako Anoeta estadiotik abiatuko den zutabearekin bat egin dezaten. 12:00etan batuko dira Anoeta estadioan.

**Arratsaldean, Hernanin**

Arratsaldez, ordea, Hernanin egingo da eskualdeko manifestazioa; arratsaldeko 18:00etan abiatuta.

Otar-Goxo
Elikagaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

BORDATXO
edaritegia
PINTXO BEREZIAK
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

izAgirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirrelektrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
✆ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

ATXEGALDE — AINARA ARNAIZ

# Urteberrion denei!!!



Aspaldiko kontuetaz ari garela badirudi ere duela 26 egun (edo) estreinatu genuen urte berria. Baina denbora gehiago pasa dela ematen du ezta? Konturatzerako erregeak etorri bezala joan ziren, opariekin batera, eta oporrak alde batera utziz gure bizitzarekin jarraitu beste aukerarik ez dugu izan. Langilea lanera, ikaslea ikastera…

Urtarril luzeari begira, egutegian hurrengo jai egunaren bila hasi ginenak San Sebastian egunarekin topatu ginen. Usurbildar askorentzat jai eguna genuen urtarrilaren 20a. Nik gogoratzen dudala behintzat Udarregin ikasi dudan urte guztietan, txikitatik danborradan jo izan dut patioan ilaraka jarriz eta astindu ederrak emanez danbor gajoei. Aurten ere ohiturari jarraiki, San Sebastian bezperan haurrek (eta ez hain haurrek…) ederki pasa zuten. Atxegalde osoan entzun ziren danbor soinuak. Kobazuloan lokarturik dagoen munstro zitala esnatu zuten seguruenik, Sarriegiren doinuen erritmoari jarraituz. Noizbehinka ateratzen du burua hor jarraitzen duela gogorarazi nahiko baligu bezala, aho zikin horretatik ke nazkagarria isuriz.



KALEZAR — BELMONTE AUZO ELKARTEA

# Jaien prestaketak hastear

Berriro ere hemen gara, Kalezarreko auzo elkartekook. Oraingo honetan ezer gutxi dugu esateko, berriro ere idazteko ordua lehenago iritsi zaigu prestatu duguna esateko baino. Aspaldi honetan, alper samarrak gabiltza elkartekook, bilerak egiteko ere ez gara geratzen. Ilusio falta, denbora falta, ez dakit zer izango den.

Orain dela lau urte biltzen hasi ginen. Bataz beste bilerak hilean behin egiten genituen, lehenengo larunbatetan, eta geroago hileko lehenengo astelehenera pasa genuen bilera eguna. Han zortzi lagun elkartzen ginen, ilusio handiz hasi ginen lanean. Pixkanaka pixkanaka jendea uzten joan da, denbora falta, laneko arazoak direla eta, orain laukote bat gara elkartzen garenak. Hau ikusita pixkanaka pixkanaka itzaltzen joan da ilusio hori, ia norbait gehiago animatzen den eta berriro ere lanean hasten garen.

Esan beharra dago, elkartekook izan ginela udaletxeak eskatuta, beste elkarteekin batera plan orokorra aurkeztu zutenak bileran. Horretaz hitz egin du Noaua!-k aurreko atalean. Bestetik, laster auzoko festak antolatzeko deia egingo dela esan nahi dugu.

SANTUENEA — PAKO AGUDO

# Txotx garaia heldu da



Auzoa berritzeko egiten ari diren obrak eta auzo, herri eta zirrikitu guztiak betetzen ari den gripe iraunkor honetaz aparte, badago zeresana garai hauetan Oria ibaiko gure bazterrean. Gripea bezala, garai honetan sagardoa iristen zaigu ere. Berarekin batzuentzako lana eta gehienentzako jai. Aialde Berrikoei lana egokitu zaie gure mesederako. Hil honetako 15ean ekin zioten aurtengo sagardotegi denboraldiari eta maiatzaren lehenengora arte aukera izango dugu auzoan bertan sagardoa, bakailaoa, tortilla, txuleta eta noski patxarana edo whiskia dastatzeko aukera.

Aurten altzairu herdoiltezinezko hiru kupel jarrita eta berrikuntza batzuk egin ostean, erosoago egon gintezke kupel tartean. Beraien lanorduak badakizkizute, afariak egunero igandetan izan ezik eta bazkariak asteburuetan.

Gustura daude izan duten harrerarekin eta langilea pozik bada, oraindik errazago murgiltzen gara bezeroak sagardotegiko giro berezi horretan. Beraz, 26 euroren truke auzotik atera gabeko aukera aparta aurten ere. Besterik gabe eta kanpotik etorriko zaretenoi semaforoa errespetatzeko gonbita luzatuta agurtzen naiz.

*Aurrerantzean, Kalejiran ataleko 7 kronikak txandaka argitaratuko ditugu. Urdaiagako kronika hurrengo batean bilduko dugu.*

AGINAGA

Mª ANGELES ARRUTI

# Arraza autoktonoa-Mapil



Bost urte igaro dira Mapil aurrean zisneak azaldu zirela idatzi eta berri eman nuenetik. Bikote horrek lehendabiziko umealdiko "sei arrautz" ur karga batek eraman zizkion bere kabi eta guzti.

Bigarren umealdiko sei arrautzetatik hiru jaio ziren eta horietako bat zauritu Txokoalde inguruan. Baten batek abisua pasa eta Ertzaintza etorri omen zen. Eta hartu eta eraman omen zuten sendatzera noski, baina geroztik ez dakigu non edo zer gertatu zitzaion eta bi senide daude.

Hirugarren umealdiko sei arrautzetatik guztiak jaio ziren, nahiz hurrengo egunean bat hil. Beraz, bost gelditu dira.

Datu bitxi bat esan nahi dizuet. Lehenbiziko bi senide horiek ez omen diete uzten oraingo senideengana inguratzea. Aitak bidali egiten omen ditu. Ikusteko aukera izan duzuenok konturako zineten. "Fila indian" ibiltzen dira normalki aita-amak aurrean dituela. Niri, hauen jarrerak gure bizimoduaren hausnarketa dakart burura.



KALEBERRI

IRATI PORTU

# U-27, langileok aldaketa



Oraingo greba honekin inoiz baino gehiago entzuten ari naiz dirua galtzeko besterik ez duela balio greba egiteak eta antzerako komentarioak. Badirudi greba guztiak berdinak direla, edo oraindik okerrago, garrantzia galtzen doazela.

Nire gaurko kronikaren helburua greba hau egin ala ez egin erabakitzera goazen unean, greba honek duen helburuaren eta garrantziaren inguruan gogoeta egitea da.

Nik ez dakit asko gai hauen inguruan, baina kontatu didatenez aldaketa benetan larriak eman nahi dituzte. Pentsio erreforma honekin urtetik urtera pobreagoak bilakatuko gaituzte (noski, pentsio plan pribatu bat egiten ez baduzu banku batean); probintzietako konbenio kolektiboak desagertarazi nahi dituzte; negoziazio kolektiboak Madrilen zentralizatu nahi dituzte... Honek guztiak eragin zuzena izango du langileongan, eta batez ere, Euskal Herriko langileongan.

Erlazio laboraletako marko euskaldun bat lortzeko bidean, eta gure arbasoek borrokatuta guretzat lortutako baldintzak ez galtzeko... Ostegun honetan guztiok grebara! Ea Usurbil guztiz itxita ikusten dugun!

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

# Zubietako bizikleteroak



Bakoitza bere zoroak bizi du. Hauena, bizikleta da. Eta oraingoan zer bururatuko eta ez dute ba Quebrantahuesos lasterketarako izena eman. Ez dira gazteak. Eta kilotan salduz gero, diru dexente etxerako.

Gainera kaskagogor, egoskor, setosoak. Nahikoa da esatea: ezetz haraino iritsi... Ez duzu esaldia bukatzerik izango. Han izango dituzu txistu bizian, tartean arima bide bazter batean erori bazaie ere. Orain zaindu behar dutela eta hor ari dira gutxiago jan, gu-txiago edan -onetik bakarrik, Cardhu, Glenfiddich, e.a.-, eta entrenatzeaz gehiago hitz egiten. Hitz egin bai, hori gogotik. Bateren batek pentsatuko du niri zer inporta zaidan. Zer nahi duzue esatea, zaila egiten zaidala ezer ulertzea larunbatero afaltzen dudan bitartean: Garmin Edge 705 GPS, Somport, Giant, Marie Blanque, maneta ... Kontuz, beraz, dozena erdi pasatxo lagun, emakume bakarra tartean, ikusten baduzue Gipuzkoako errepidetan igande goizez, Mateo Txistuk baino hots handiagoa atereaz. Egin alde batera, fite, eta utzi pasatzen. Beraiek pasatzen diren lekutik ez da berriro belarra hazten.

# Otsailaren 7tik aurrera, notariotza zerbitzua eskainiko du Udalak

**Herritarrek burutu ohi dituzten hainbat tramite erraztu asmoz, Usurbilgo Udalak notaritza zerbitzu berria martxan jarriko du otsailaren 7an. Astean behin, bi orduz Miguel Angel Martinez notarioak herritarrek eskatutako argibideei erantzuten edo dokumentazioa euskaraz bideratzen lagunduko die. Berak dakartza zerbitzuaren inguruko xehetasun gehiago lerrootan.**

**NOAUA! Notaritza lana zertan datza?**

**Miguel Angel Martinez.** Zerbitzu publiko eta doakoa da. Nagusiki aholkularitza lana burutzen dugu. Inpartzialak gara. Informatzen diogu herritarrei edozer gauza egin aurretik, nola egin dezakeen. Beharrezko tramite guztiak egiten ditugu: edozein salerosketa inskribatu edo erregistratzeko, maileguak, ezeztapenak, sozietateei loturiko gaiak, kapitalen handitzea, sozietateak eratzea, partizipazioen salmenta… Eskriturak dokumentatzen ditugu. Herentziari lotutako gaiak ere lantzen ditugu; partiketak, adjudikazioak, testamentuen kontzepzioa. Testamentuen gaian, ezjakintasun nahikoa dago gainera. Mota guztietako aktak egiten ditugu, edozein arazo dagoenean; etxean pitzadurak daudenean, obrak daudenean bideoz edo argazkiz grabatzen ditugu. Hori guztia notaritzatik pasatzen da. Edozein gauza dokumentatu daiteke. Horrek oso eguneratuak egotera derrigortzen gaitu, zergen gaian adibidez.

**N. Ezjakintasun handia dago kontuotan. Zer dela eta?**

**M. A. M.** Lehenik, kontuan izan 1862. urteko erakunde bat dela hau. Jendeak notarioa, pertsona heldu, serio, ezer galdetu ezin zaion eta diru asko kobratzen duen pertsona gisa ikusten du. Baina notarioarengana joatea, Europako leku merkeenera joatea da, merkeena ez bada. Testamentu batek 40 euro balio ditu. Testamentu batek dirutza balio duela uste da. Aktak eta salerosketen prezioak hitzartutakoak dira. Faktura bat ikusten baduzu, ez da jendeak uste duen bezainbatekoa. Ezjakintasuna eta erakunde honi zaion beldurra bada. Inor ez da arduratu ikusarazten jendeari notaritza lana askoz zabalagoa dela. Gure lana sinatze hutsetik haratago doa.

**MIGUEL ANGEL MARTINEZ**

> "Oro har, mota guztietako notaritza eta aholkularitza zerbitzuak egin ahal izango dira"

**N. Usurbilgo Udalean egonik, zerbitzua bera gerturatuko zaie herritarrei?**

**M. A. M.** Lasarte-Oria hiru kilometrotara egon arren, ez zait kostatzen hara gerturatzea. Dokumentuen kontu guztia, Lasarte-Oriako notaritzan zentralizatuko da. Baina sinatzeak eta aholkularitza udaletxean bertan eskaintzea, oso gomendagarria eta erabilgarria dela uste dut. Jendeari zerbitzua emateko modu bat da, batez ere, mugitu ezin dutenei, helduei begira.

**N. Zer zerbitzu eskainiko duzue?**

**M. A. M.** Oro har, mota guztietako notaritza eta aholkularitza zerbitzuak; kontsultak, mailegu sinatzeak…



MIGUEL ANGEL MARTINEZ, USURBILEN ARITUKO DEN NOTARIOA.

## Astelehenetan, bi orduz

**N. Herritarrak nola jar daitezke harremanetan zerbitzu berri honekin?**

**M. A. M.** Hasiera batean astelehen goizetan bi orduz egongo naiz, 10:00-12:00 artean. Askotan halere, herritarren ordez, abokatu, seguru eta bankuek zuzenean deitzen digute. Lana Lasarte-Oriako bulegoan zentralizatzen da.

**N. Zein da eskaera gehien jasotzen dituen zerbitzua?**

**M. A. M.** Oinordetza eta merkataritza alorrak bereziki. Testamentu eta mailegu pertsonal asko tramitatzen ditugu.

**N. Amaitzeko, zer esango zenieke herritarrei?**

**M. A. M.** Kontsultatzeko, edozein zalantza izanez gero jendeak notarioarengana joateko beldurra galdu eta zerbitzua erabil dezala. Ondo hartuko ditugu, eta batez ere, hitzaldira joan daitezela.





# Aginagako Herri Eskolan astelehenean zabalduko dute matrikulazio epea

**Urte hasierarekin batera, ikasleak matrikulatzeko garaia heldu da. Aginagako Herri Eskolan urtarrilaren 31tik aurrera hamar eguneko tartea izango da izena emateko. Hezkuntza proiektu anitza, partehartzailea eta euskalduna eskaintzen dute bertan, landa inguruko bizitzari lotua, ikasleen interakzioa eta hezkuntza agenteen gertuko elkarlana bultzatzen dituena.**



ARGAZKIAN, HERRI ESKOLAKO IKASLEAK.

**NOAUA! Zeintzuk dira Herri Eskolak eskaintzen dituen zerbitzuak?**

**Aginagako Herri Eskola.** Eskola txikien definizioaren arabera gure eskolan ematen den egoera, eta identitate ezaugarri garrantzitsuena zera da: "gela bakoitzean adin ezberdinetako umeak egotea". Honek adinen arteko elkarreragina era natural batean bultzatzen du eta ikasleek beraien esperientzietatik ere ikasten dute. Haur eta Lehen hezkuntza eskaintzen du Aginagako eskolak, hau da 2-12 urte bitartekoentzat D ereduko irakaskuntza eleanitza. Harremanetarako hizkuntza akademikoa euskara dugu baina beste hizkuntzei ere, gaztelera eta ingelera, garrantzia ematen diegu. Ingelera 3 urtetik aurrera irakasten da. Bestalde, arte hezkuntzan, hau da, plastika eta musikan 2 urtetik aurrera ere murgiltzen hasten dira. Era digitalean ezin ditugu informazio eta komunikaziorako teknologiak ahaztu eta gure ikasleak teknologi berrietan trebatzen ditugu. Behar bereziei aurre egiteko irakasle espezializatuaren laguntza dugu. Eskolako beharrei erantzuteko beste Eskola Txikiekin batera lana egiten dugu, berriztapen proiektuak aurrera eramaten, irakasleok etengabeko formazioa jasotzen, herri ezberdinetako ikasleen arteko harremanak bultzatuz eta gurasoek Gipuzkoako Gurasoen Elkarteetako Koordinakundean parte hartuz. Azkenik, behar dutenentzat jangela zerbitzua daukagu.

**N. Zein dira hezkuntza proiektuaren ezaugarri nagusiak?**

**A. H. E.** Hezkuntza proiektua burutzeko garaian landa eremuan kokatua dagoen auzo txiki bateko eskola dela kontutan izan dugu. Adin desberdineko ikasleak hartzen ditugu eta gela berean zenbait adinetako ikasleak ditugu. Guretzat oso garrantzitsua den ezaugarri honetaz aparte, gure hezkuntza proiektuak ezaugarri hauekin bat dator: anitza da, partehartzailea (guraso, hiritar...), euskalduna, eleanitza... Honetaz gain, gure ardatz- metodologiko nagusiena, ikasleari ikaste prozesua eraikitzen laguntzea, eta hezkuntza legeak ezarritako oinarrizko konpetentziak garatzea da.

**N. Garrantzitsua da eskolak bere ingurunearekin lotura ahalik eta sendoena izatea.**

**A. H. E.** Denok, eta batez ere haurrek hobekien garatzeko, ezagutzen dituzten horien bitartez eta benetako egoeretan ikasten dutelako gehien. Bestalde, inguruan ditugun baliabide naturalak aprobetxatuz ingurumenarekiko errespetua eta begirunea lantzen ditugu. Kulturari dagokionez, Euskal- Herriko tradizioetan parte hartzen dugu, hala nola Santa Ageda, Olentzero...

**N. Hezkuntza agente guztien arteko elkarlana nola gauzatzen da zuen kasuan?**

**A. H. E.** Haurren inguruko agente garrantzitsuenak (San Praixku guraso elkartea, irakasle, hiritar...) elkarrekin lan egiten badugu, haurraren beharrak asetzeaz gain taldearen izaera indartuko dugu, elkarlanerako bidea egiten lagunduz eta kooperazioa era naturalean sustatuz. Esaterako, guraso elkarteak zenbait ekintzetaz arduratzen da urtean zehar.

## "Denon eskola da"

**N. Urte kezkagarriak izan dira ikasle faltarekin... Egoera hobetu al da?**

**A.H.E.** Egoera onean gaude. Azken urteetan matrikula igoera izan dugu eta gaur egun Haur Hezkuntzan nahiz Lehen Hezkuntzan talde politak ditugu, adin guztietako ikasleak daudelarik.

**N. Ate irekien eguna ere antolatu duzue.**

**A.H.E.** Bai, ate irekien eguna antolatu dugu herritarrei gure eskola eta funtzionamendua gertutik ikusteko aukera emateko. Baliagarria dela uste dugu.

**N. Zergatik matrikulatu beharko lituzkete gurasoek euren seme- alabak Aginagako Herri Eskolan?**

**A.H.E.** Umeak, inguru natural batean, herrian bertan eta giro euskaldunean egoteaz gain, gertutasunean oinarritutako hezkuntza sustatzen delako. Hau da, familia, irakasle, ikasle eta herritarren arteko harremana estua dugu. Denon eskola da.

### Ate irekien eguna

**Eguna:** otsailak 3, osteguna.
**Ordutegia:** 9:30-17:00.
**Izena emateko epea:** urtarrilaren 31tik otsailaren 10era arte.
Informazio gehiago: 943 372 044
012261aa@hezkuntza.net

# “Gipuzkoaren jatorria”

## Herrialdeko hastapenei buruzko DVDa argitaratu du Nabarraldek

**Gipuzkoaren sorrera jasotzen duen DVDa aurkeztu zuten gabonetan Sutegin. "Gipuzkoaren jatorria" izeneko DVDa, orain, udaletxeko Euskara Zerbitzuan eskura daiteke. Nabarraldek bultzatu duen lan honetan, herrialdearen gertaera historikoen errepasoa egiten da, 1025. urtean Ipuzkoa izeneko lurralde bat dokumentuetan aipatzen hasten denetik hasita. Beñi Agirre da egileetako bat eta bere bitartez jaso ditugu lan honen xehetasun gehiago.**



BEÑI AGIRRE, NABARRALDEKO KIDEA ETA “GIPUZKOAREN JATORRIA” DVDAREN EGILEETAKOA.

**NOAUA! "Gipuzkoaren jatorria" aurkeztu zenuten abenduaren 29an. Nola joan zen aurkezpen ekitaldia Usurbilen?**

**Beñi Agirre.** Zalantzarik gabe interes handia piztu du usurbildarren artean lan honek. Alkate jaunak sar hitz batzuk egin zituen eta eskerrak eman zizkigun bertaratuei eta lan honetan parte hartu dugunoi.

> **BEÑI AGIRRE, EGILEA**
>
> “DVD honetan ez duzue aurkituko ez bertsio ofizialik ez eta mitoetan oinarritutako kontakizunik”

Ondoren dokumentala ikusi genuen eta amaierako txalo zaparradak ezin hobeto erakutsi zuen jendearen iritzia eta emozioa.

**N. Onena ikustea izango da, baina ikusi ez duenarentzat eta ikustera animatu behar bazenu, nola definituko zenuke lan hau?**

**B. A.** DVD honetan ez duzue aurkituko ez orain arteko bertsio ofizialik ez eta mitoetan oinarritutako kontakizunik. Aditu batzuen hitzetan entzungo duzue Gaztelak nola konkistatu zuen gaur Gipuzkoa bezala ezagutzen dugun nafar-lurra, 1200ean Gipuzkoa ez baitzen existitzen, eta nola antolatu zuen Gaztelak lurraldea eta bultzatu zituen bertako jauntxo batzuk anaion arteko gerratan nahasteko. Gaztelako erregeekin omen genuen hitzarmen edo paktua gezur hutsa dela entzungo duzue, inongo frogarik ez dagoela eta gaztelarren interesa hemengo ondasunak xahutzekoak besterik ez direla izan.

**N. Non eskuratu daiteke "Gipuzkoaren jatorria" DVDa?**

**B. A.** Bada Usurbilen aspaldidanik Nabarralderekin lan egiten duen talderik eta jenderik, herrian aski ezagunak direnak eta urteetan dinamika oso eraginkorra sortu dutenak. Ez da DVDa bakarrik, gure herriaren geroaz kezkaturik usurbildarren formazioan eta euskal identitatea lantzen lan eskerga ari da egiten Nafartarrak taldeak. DVDa eskuratzeko udaletxera jo, lanerako, berriz, talde horrengana zuzendu.

### Usurbilgo Udalaren laguntzaz

**N. Usurbilgo Udalak ere diruz lagundu du. Hori ere nabarmentzekoa da, ezta?**

**B. A.** Nabarmentzekoa eta eskertzekoa, bai horixe. Hainbat udal eta alkateen laguntzarik gabe lan hau ez baitzen posible izango. Gaur, horiei esker, eta Usurbilgoa barne, Gipuzkoaren historiari buruz beste ikuspegi bat izateko aukera daukagu. Espainiarren manipulazio ofizialetatik kanpo orain arte inoiz gutxitan kontatu den moduan kontatua.

### JoxAnton Artzek ere hartu du parte bideoan



**NOAUA! Modu batean edo bestean esku hartu dutenen artean, JoxAnton Artze aurkitu dugu. Zein izan da zehazki, Artzek DVD honi egin dion ekarpena?**

**Beñi Arregi.** Joxanton Artzek aspaldian kontatu zigun hau guztia bere poemen bidez. DVDan, alderdi pedagogikotik heltzen dio gaiari eta garbi esaten digu elkarrekin lana egin ezean eta gure historiatik ikasi ezean, gu astazakilok, berriro porrotaren bidean harrapatuko gaituela etsaiak.

# Joxean Lazkano, Aialde Berri: "Gustuz eta usainez ondo dator aurtengo sagardoa"

**Aialde Berri sagardotegiak hasi du txotx denboraldi berria. Maiatza hasi arte, bederatzi kupel bete sagardo dastatzeko aukera izango da Santuenean kokaturiko sagardotegian. Sagardo ederra, Joxean Lazkanok lerrootan azaldu duenez.**



JOXEAN LAZKANO, AIALDE BERRIKO KUPELEN ARTEAN.

**NOAUA! Denboraldiko nobedadeetako bat, kupela berriak?**

**Joxean Lazkano.** Kupelak lehen denak egurrezkoak genituen. Egurra pixkanaka galtzen doa, orduan bi aldatu eta altzairuzko hiru jarri ditugu. Ikusiko dugu jendeak zer erreakzio duen. Bestela, lehengo erako sotoa eta sagardo naturala mantendu nahi ditugu.

> **JOXEAN LAZKANO**
>
> "Askok diote gure sagardoak bihotzerrerik ez diola ematen"

**N. Aurtengo ekoizpena, zenbatekoa eta nolakoa duzue?**

**J. L.** Bederatzi kupel ditugu, bataz beste 37.000-38.000 litro inguru. Sagardoak kolore indartsuagoa izango du, baina gustuz eta usainez ondo dator. Saiatzen gara dena hemengo sagarrarekin egiten. Urtero ordea ez da posible izaten. Aurten, Hendaia aldetik ere ekarri dugu. Aurtengo sagarraren kalitatea ona da. Sagarrak bere lana egiteko eguraldi ona izan du.

**N. Sagardoaren zer ezaugarri baloratzen dute gehien bezeroek?**

**J. L.** Sagardoaren loditasuna. Sagardoa garbitzen doan heinean, gorputza mantendu arren, mehetzen joaten da. Baina loditasun hori ez da bilatzen edozein sagarretan. Bestalde, askok diote gure sagardoak bihotzerrerik ez diola ematen.

**N. Zer bezero aurreikuspen duzue?**

**J. L.** Bi urteotan aurreikuspena egitea zaila da, kanpo faktore asko baitaude. Krisialdiak zerbait sortu badu, beldurra da. Ez duenak ez duelako, eta zerbait duenak beldurra duelako. Gure aurreikuspena orain oso motzera doa, asterokora. Ilusioa dugu eta horrekin esperantza. Ez da gaizki hasi. Iaz bezala joanez gero, gu konforme.

**N. Erretzaileak tartean izango dituzue. Baina barruan ezingo dute erre?**

**J. L.** Sotoan iaz erretzea debekatu genuen, orain jantokian. Ikusi ditut iaz ere galarazia zuten sagardotegi handiak eta ondo funtzionatu dutenak. Egun batzuk pasa dira, ez du ematen iskanbila handirik izan denik. Abantaila asko ditu. Bestalde, jangelan garbitasun handiagoa nabarituko da, lurrean zigarrorik ez baita egongo.

**N. Eusko label berriaren inguruan, zer ikuspegi duzue?**

**J. L.** Kalitate label guztiak onak direla uste dut. Sagardoari balore bat emateko sistema ona dela, azken aldian sagardoak balorea asko galdu baitu. Baina hor badira beste modu batean konpondu beharreko arazoak. Labelean ezin al zara sartu, ekoizpenaren zati bat hemengo sagarrarekin egin bada? Edo labelean bertako sagarrarekin egindako zatia bakarrik sar daiteke? Bestalde, sagardotegiak badira proiektuetan sartuta daudenak. Horrek zer esan nahi du, nahiz proiektu ona izan, kanpo utzi behar dela. Ez dakigu non geratuko den.

## "Giro onean egoteko leku ona da"

**NOAUA! Zuen bezeroak nondik datoz?**

**Joxean Lazkano.** Geroz eta gertuagokoak direla ikusten da. Hasiera batean, Donostia aldeko jende gehiago izaten genuen. Bazkideetako bat, Martxel, inguru hartakoa izan eta ezagun asko zituelako. Alkoholemia kontuek joan etorria asko mugatzen dute ordea, eta gaur egun guretzat trena da ona, geltokitik gertu baikaude. Bezero asko ditugu baita bertakoak, usurbildarrak. Talde handiak ez hartzen saiatzen gara, bestela herrikoei ezetz esan behar baitiegu. Hasieran gure bezeroak helduagoak ziren, baina ondorengoak ere badatoz. Erreleboa badago.

**N. Egin gonbita bezeroei.**

**J. L.** Bederatzi kupela ditugu eta hona datorrenak, bederatzi kupeletatik edaten du. Giro onean egoteko leku ona da, gertukoa.

**Aialde Berri**
**Helbidea:** Santuenea Auzoa, 37.
943 365 031 / 670 027 731.
**Tokia:** 100 bat lagunentzat.
**Kupelak:** 9.
**Epea irekita:** urtarrilaren 15etik maiatzera arte.

# San Sebastian Usurbilen

## Udarregiko ikasleek danborrada eskaini zuten pasa den astean

Kapel eta arropa zuriak soinean, danborra joaz aritu ziren San Sebastian bezperan Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleak. Ikasleen guraso eta senitarteko ugari bertaratu ziren Udarregi ikastolako zezen plaza formako patiora, baita Agerialde atzeko frontoira ere.


ADI-ADI JARRAITU ZITUZTEN ZUZENDARIEN AGINDUAK.

Udarregiko ikasleek, irakasleak inguruan zituztela, danborrada festari lotuta ezagutzen ditugun abesti ezagunenak jo zituzten urtarrilaren 19an, arratsaldeko laurak inguruan hasi zen ekitaldian. Ordu laurden pasatxo iraun zuten danborrada saioek eta goizean euria egin bazuen ere, arratsalderako atertu egin zuen.

Ostiralera arte ez ziren itzuli ikasle eta irakasleak ikastolara. San Sebastian jai eguna baita Udarregi ikastolan. Gure web orrialdean, **www.noaua.com**, danborradaren bideoa dago ikusgai.









IKASLEAK GOGOTSU PRESTATU ZUTEN DANBOR-SAIOA.

# Asteburu honetan amaituko da Sahararen aldeko kanpaina

**Arroza, azukrea, lekadunak, sardinak, atuna eta konpresak. Horiek dira Tindufeko basamortuan bizi diren errefuxiatuek beharrezkoak dituzten elikagaiak eta osagaiak. Usurbilgo Elkartasun Taldeak bat egin du Sahararen aldeko Euskal Karabanarekin eta dagoeneko hasi dira elikagaiak biltzen. Asteburu honetan izango dugu gure elkartasuna adierazteko azken aukera.**



ARROZA, AZUKREA, LEKADUNAK, SARDINAK, ATUNA ETA KONPRESAK BILTZEN ARI DIRA.

Urtarrilaren 17an hasi zen Sahararen aldeko kanpaina eta urtarrilaren 29an amaituko da.

Arroza, azukrea, lekadunak, sardinak, atun-latak eta konpresak dira Euskal Karabanatik eskatzen ari diren elikagaiak eta produktuak.

Elkartasun hori bideratzeko, honako tokiak baliatu dituzte Usurbilen: DIA, Aliprox, Udarregi Ikastola eta Haur Eskola.

Azken egunean, urtarrilaren 29an larunbata, Urbileko Eroski supermerkatuan janari bilketa berezia egingo da, goizeko 11:00etatik arratsaldeko 18:00ak arte.

# Negu giroari aurre egiteko, kantu-jira

Hilabeteko azken larunbatean elkartu ohi dira, eta larunbat honetan ere, gauza bera egiteko asmoa dute. Kantu jira 19:00etan abiatuko da Mikel Laboa plazatik. Ohiko kantariek, badakite honez gero larunbat honetan kantu-jira dagoela. Baina lehen aldiz hurbildu nahi dutenek ere ateak zabalik dituzte: "Usurbilgo Kantu Taldearekin batera, Usurbil Kantuz liburuxka hartuta, kalez kale kantatzera etor zaitezte".



19:00ETAN ELKARTUKO DIRA MIKEL LABOA PLAZAN.

## Datorren astean, Santa Ageda bezperako kantu saioak

Ohikoa den moduan, Santa Ageda bezperan kantari aterako dira Zubietako hainbat lagun. Helduentzako ensaioak ostiraletan egingo dira, arratsaldeko 19.00etatik aurrera Kaxkapen, frontoi atzeko lokalean. Aste honetan, urtarrilaren 28an, arratsaldeko 19:00etan egingo dute azken entsegua. Gogoan izan helduentzako deialdia dela hauxe.

### Bota Punttubakoak, kantari

Zubietan bakarrik ez, Kaxkoan ere biziko da Santa Ageda bezperako giroa. Iaz bezala, Bota Punttuba Bertso Eskolako kideek antolatu dute aurtengo saioa. Hitzordua, otsailaren 4an, iluntzeko 19:00etan jarri dute, Mikel Laboa plazan.

Kaxkoan tabernatik tabernarako ibilbidea osatuko dute eta gero sagardotegietara joango dira. Urdairan amaitzea aurreikusten dute. Ekitaldi irekia izango denez, herritarrak parte hartzera deitzen dituzte. Hori bai, baserritar jantziekin eta Santa Ageda makilarekin agertzea ezinbestekoa izango da.



SANTA AGEDARI KANTATZEN, DUELA BI URTE.

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4 20170
Tlf 943 37 08 78 USURBIL

LATAILLADE ITURGINTZA
GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK
Ariztitxo 8,behea · 943 363 348 · 609 888 021

# Larunbat honetan Ardi Beltzen, Euskal Herriko Mus Txapelketarako kanporaketa

**Hirugarrenez antolatu da Euskal Herriko Mus Txapelketa. Kanporaketa fasean da txapelketa eta Usurbilgoa larunbat honetan jokatuko da Ardi Beltzen. 16:00etan irekiko da izen-ematea.**

Herriz herri, kanporaketak jokatuko dira. Usurbilen, larunbat honetan Ardi Beltz garagardotegian. 16:00etan hasiko da izen-ematea, eta segidan mus partidak. Izen-ematea, 20 euro.

Eta Ardi Beltzeko kanporaketan banatuko diren sariak hauek izango dira: txapeldunak otordu bat Saizar sagargotegian, bigarrenak marisko lotea, hirugarrenak otordu bat Ardi Beltzen eta laugarrenarentzat baserriko oilaskoa eta bi botila ardo.




AZAROAN EGIN ZEN MUS TXAPELKETAREN AURKEZPENA.

### Zazpi herrialdetako bikoteak

Euskal Herriko Mus Federazioaren arautegiaren arabera jokatuko da. Eta arauak, eskura izango dira Ardi Beltzen.

Webgune batean jarraitu daitezke kanporaketa denak. Bertan ematen dira gainera, txapelketaren nondik norako azalpenak: "Egun Euskal Herriak bizi duen zatiketa gainditu eta oinarri gisa zazpi herrialdetako muslariak elkar topatzeko helburuarekin" jarri zen martxan Euskal Herriko Mus Txapelketa.

### Final nagusian, sari potoloak

Hau hirugarren edizioa izango da. Orreaga, Iparra-Hegoa eta Bai Euskal Herriari elkarteek sustatzen dute txapelketa hau. "Gainera irabazi asmorik gabe, bide horretan jarraituko duen tresna sortzea dugu helburu", diote web orrialdean.

Final nagusietara iristen direnek sari potoloak jasoko dituzte. Garaileek, garai-ikurra, 3.000 euro eta nazioarteko bidaia lau pertsonentzat. Baina aurrera egiteko, lehenbizi, Usurbilgo kanporaketa irabazi beharko da.

## 1956ko kinto afaria

1956an jaiotakoek afaria antolatu dute datorren otsailaren 26rako. Antxetan egingo dute kinto afaria. Joan nahi duenak, otsailaren 19a baino lehen eman dezala izena, ondorengo telefono zenbaki hauetako batera deituz:

627 709 657 (Mari Kruz)
943 370 265 (Inaxio).

# Gure Pakearen biltzar nagusia

**Datorren astean, Gure Pakea jubilatuen elkarteak Ohiko Biltzar Nagusia egingo du. Batzarra Artzabalen izango da, urtarrilaren 28an ostirala, 16:30ean.**

**Gai zerrenda:**

1.- Lehendakariaren agurra.

2.- Aurreko biltzar nagusiaren akta irakurtzea eta onartzea, hala badagokio.

3.- 2010eko memoria irakurtzea eta onartzea, hala badagokio.

4.- Honako hauek irakurtzea eta onartzea, hala badagokie:
a) 2010eko diru sarreren eta gastuen balantzea.
b) 2010eko abenduaren 31n itxitako diru egoeraren balantzea.

5.- Batzordearen berrikuntza.

6.- 2011. urtean egin daitezkeen aktibitate berrien proposamenak.

7.- Galde-erantzunak.

**Lekua:** Gure Pakea, Artzabal.









# Mikel Otaegi elite mailako duatloi kirolari onena izendatu dute

**Elite mailako lehen urtea borobila izan da Mikel Otaegi usurbildarrarentzat. Emaitza ikusgarriak lortzearekin batera, abenduan urteko duatleta onena izendatu zuten Araetan burutu zen sari banaketa ekitaldian. Baxurde Txikiko kideak ordea, burua datorren denboraldian jarria du. Mungian eta Barakaldon jokatuko dira lehen duatloi probak, otsaila amaieran.**

**NOAUA! Duatloi kirolari onenaren saria jaso duzu. Azaldu iezaguzu bere esanahia.**

**Mikel Otaegi.** Duatloi zirkuituan hamahiru lasterketa daude. Horietako zazpi onenen sailkapenak kontuan hartuta puntuak ematen dizkizute. Sariketarako puntu horien batura egiten da denboraldi bukaeran. Aurten Hego Euskal Herri mailako lasterkariena hartu da kontuan eta mailaka. Neure kasuan, elite mailako lehen urtean jaso dut saria.

**MIKEL OTAEGI**

"Lehen lasterketa irabazi izanak, hurrengoetarako konfiantza handia eman zidan"

**N. Emaitza horiek zer faktoreri esker lortu dituzula uste duzu?**

**M. O.** Entrenatzeagatik eta oro har gozatu egiten dugulako. Lasterketetan ni behintzat oso burugogorra naiz. Behin erasoan hasita, ezina izaten dut helmugara iritsi arte. Iaz, lasterka lehen taldean egoten saiatzen nintzen, ezin bazen atzeko taldean, tartean ez. Gero, bizikleta hartu bezain laster, aurreraino ailegatu arte aritzen nintzen. 2010eko emaitzak bizikletan lorturiko distantziengatik izan ditut.

**N. Elite mailarako jauzia handia izango zela espero zenuen. Baina azkenean hainbestekoa izan al da?**

**M. O.** Ez nekiena zen hainbeste hobetuko nuenik. Lehenago, tarte handia ateratzen zizkidaten lasterkariak iaz jada gertuago ikusten nituen. Beraiekin jada hor korrika egin eta gero bizikletan emaitzak hobetzeko baliatzen nuen. Gutxienez saiatu, dena eman eta ondo ateratzen bazen ondo, eta bestela ahalik eta hoberen bukatzen saiatu naiz.

**N. Ezusteko denboraldia izan da beraz iazkoa?**

**M. O.** Bai. Lehen lasterketa irabazi nuenean, ez nuen inondik ere espero. Espero ez nituen garaipenak izan ditut 2010ean.

**N. Datorren denboraldirako helmuga urrutirago jarriko duzu?**

**M. O.** Helbururik ez dut jartzen. Lasterketa bakoitzean dena ematen dut eta gero ateratzen dena.

**N. Denboraldi berria hasteko hilabete pasatxo geratzen den honetan, hasi al dituzue prestaketa lanak?**

**M. O.** Urte osoan ez naiz geratzen. Lesionatzen naizenean geratzen naiz. Bestela, denboraldia hasi baino hiru hilabete lehenago prestakuntzari begira nago. Erritmoa indartzen dut, kilometroak eta lasterketen simulazioak egiten hasi… Bitartean, gozatzeagatik entrenatzen dut.



MIKEL OTAEGIK URTE BOROBILA OSATU DU.

**N. Baxurde Txikikoa izanik, taldekideekin bilduko zara entrenatzeko?**

**M. O.** Normalean igande goizetan bizikletan ibiltzen gara. Aurreko asteburuan hamabost bat bildu ginen. Hor jada, nahi edo ez, aldapa iristean lehiakorra dena beti da lehiakorra.

## "Aurten, dena emango dut berriz ere"

**NOAUA! Aurtengotik zer espero duzu?**

**Mikel Otaegi.** Ez dakit jendea nola egongo den, geroz eta jende gehiago animatzen da kirol hau egitera. Iaz, lehen lasterketa irabazi izanak, hurrengoetarako konfiantza handia eman zidan. Psikologikoki hain ondo egoteak fisikoki lortu ezin duzun plus hori ematen dizu. Oroitzapen horiek oso bizirik ditut. Aurten, dena emango dut berriz ere.

**N. Proben egutegi propioa egina izango duzu?**

**M. O.** Halakorik ez. Ahal dudan guztietara joaten naiz. Ez duzu derrigortasun hori talde kiroletan bezala. Zuk inplikatzen duzu zure gorputza, lehiatzera edo gozatzera joan nahi duzun. Eta lasterketak aukeratu egiten dituzu.

## Udaberri Txapelketa

<u>Urtarrilak 28 ostirala 20:00, Aginagan</u>
**Eskuz Binaka Jubenilak 2. mailan**
Usurbil-Igeldo
(Jon Zendoia - Imanol Zinkunegi)

**Paleta Goma Gizonak 2. mailan**
Usurbil 1-Loiolatarra
(Josu Arruti - Jon Olaizola)

<u>Urtarrilak 30 igandea 11:00, Usurbilen</u>
**Eskuz Binaka Kadeteak 3. mailan**
Usurbil-Zumaia
(Jokin Irazusta - Mikel Portularrume)

**Eskuz Binaka Kadeteak 1. Mailan**
Usurbil-Añorga
(Iñigo Ibargoien - Josu Furundarena)

**Eskuz Binaka Nagusiak 1.Mailan**
Usurbil-Añorga 1
(Xabier Errasti - Asier Katalina)

## Agenda

### Urtarrilak 28 ostirala

- **Gure Pakearen biltzar nagusia,** 16:30ean Artzabalen.
- **Azken ostiraleko elkarretaratzea** Mikel Laboa plazan, 20:00etan.
- **Triki-poteoa,** 20:00etan, Akerra gaztetxearen eskutik kaxkoan. 23:00etan Kontzertua Akerra gaztetxean.

### Urtarrilak 29 larunbata

- **Euskal Herriko mus txapelketa,** 16:00etan Ardi Beltzen.
- **Kantu-jira** 19:00etan, frontoian.

## Goardiako farmaziak

**Urtarrilak 27, osteguna**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Urtarrilak 28, ostirala**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Urtarrilak 29 larunbata**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Urtarrilak 30, igandea**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Urtarrilak 31, astelehena**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Otsailak 1, asteartea**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Otsailak 2, asteazkena**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Otsailak 3, osteguna**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Otsailak 4, ostirala**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Otsailak 5, larunbata**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Otsailak 6, igandea**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

** Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.*

***GOARDIAKO FARMAZIA,GAUEZ***
***Aizpurua, Latxunbe Berri, 11, Hernani***
***Telefono zenbakia: 943 336 077.***

# Olio bilketarako beste gune bat ireki da Pikaolako garbigunean

**San Marko Mankomunitateko kamioiak bitan bisitatzen du Usurbil, hilabeteko lehen eta azken asteazkenetan hain zuzen. Besteak beste, erabilitako olioa eraman daiteke bertara. Baina Udaleko Komunikazio Sailetik ohartarazten dutenez, ordutegi aldetik moldatu ezin duenak, badu olioa uzteko bigarren gune bat ere; Pikaola. Bertan, aipatu gaia uzteko egokitutako gune bat erabiltzeko prest dago aspalditik.**

Aipatu moduan, bestela, San Marko Mankomunitateko kamioia datorrenean utzi daiteke erabilitako olioa. Hileko lehen asteazkenetan, goizeko 9:00-11:00 artean Kaxkoan egon ohi da, eta gero, 11:00etatik 13:00etara auzoetan. Hileko azken asteazkenetan berriz, Kaxkoan bertan goiz osoan zehar: 9:00etatik 13:00etara.



PIKAOLAKO GARBIGUNEAN OLIOA BILTZEKO AUKERA DAGO.

## Internet ikastaroa KzGunean



Otsailaren 1etik otsailaren 14ra, "Internet eta e-administrazioa" izeneko ikastaroa antolatu du KzGuneak. Astelehenetik ostiralera, honako ordutegian: 16:00etatik 18:00etara.

### Arratsaldez zabalik

Gogoan izan, KzGunea arratsaldez egongo dela zabalik otsailean:
Astelehenetik ostiralera.
Ordutegia: 16:00-20:00
Telefono zenbakia: 943 570 999
tutor.usurbil@kzgunea.net

## Trikipoteoa eta kontzertu gaua, Akerrakoen eskutik

Urtarrileko azken aste honetarako ekitaldi sorta antolatu dute Akerra gaztetxekoek. Ostiralean, urtarrilaren 28an, afalaurreko orduak girotuko dituen triki-poteoa burutuko dute kaxkoan, iluntzeko 20:00etan hasita. Eta afalostean, kontzertu gaua ospatuko dute Akerra gaztetxean. 23:00etatik aurrera hiru taldek joko dute Txokoalden: Despervicio (Usurbil), Disorders (Zaldibar) eta Itzartu (Lasarte-Oria) taldeek hain zuzen.

### "Home" pelikula igandean

Amaitzeko, igandean, urtarrilaren 30ean, bideo proiekzioa antolatu dute Sutegin. "Home" proiektatuko dute, 18:00etatik aurrera.









### Etxebizitza

Etxebizitza alokatzen da Santuenea kalean, 3 logela eta altzariak ditu. 943373185 / 635209230.
- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan, 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatuta. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitsua. Tlf: 686969112
- Kaxkoan etxebizitza salgai. Hiru logeladuna, bi komun eta trasteroarekin. 685 731 792.
- 90 metro karratuko pisu bat daukagu salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, bi komun eta 7 metro karratuko ganbara bat.Oso eguzkitsua eta bizitzen jartzeko moduan dago. 699680265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu).
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 130.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Pisu bat hartuko nuke alokairuan Usurbilen, bi hilabetez. Presazkoa da. 671 45 00 90.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
- Pisu bat alokatuko nuke, 3 logelakoa eta amueblatua. 646 086 109.
- Logela bat alokatuko nuke edo konpartitzeko etxe batean sartuko nintzateke alokairuan. 648 005 159.
- Apartamendu edo logela bat alokatuko genukeen bikote bat gara. 677866495
-Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 364 637 / 943 365 299
-Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat salgai Alfaron (Errioxa). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herritik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna, portxea. 675702428 (gauez).
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
-95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 141.000 euro. 943 36 98 35 (21:00etatik aurrera).
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
-Santuenea 26an 60 metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldea handia, etxeak kanpokaldera ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
-Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

### Salerosketak / garajeak

- Fiat Punto bat salgai. 120.000 km eta 1.500 euro. Interesatuak deitu: 687757850 (Arantxa).
-5 plazako Roller karabana bat daukagu salgai abantzea eta gainerako akzesorioekin. 3500 euro. 676453176.
-Txaramunto auzoan 15 metro karratuko garaje itxi bat alokatzen da, 85 euro. 661 618 970.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- Munalurra auzoan jarraian dauden garajeko bi marra dauzkat salgai. Biak batera edo banaka. 678225241.
-33m karratuko lokal bat alokatzen dut Atxegalden 280 eurotan. Sarrera egokia. 943373414
- Zazpi plaza dituen Kia Carnival bat saltzen dugu. 2004 urtekoa da eta 118.000 km dauzka, ondo zaindua, beti garajean egondakoa. 669353942.
- Bizkarre kalean garaje itxi bat daukagu salgai. Altura bikoitza du eta altilo bat egina dauka. Interesatuak deitu 943576957 telefonora.
-Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
-Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotako altuera. 943361265.
-50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

### Lanpostuak

#### Lan-eskaerak

-Emakume bat behar da haurrak zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. Interesatuta bazaude 615756893.
- LHko bi umeei bazkaria emateko norbaiten bila gabiltza. Egokiena kaxkoan bizi den norbait. Telf. 689 769282
-Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabiltza. Banaketa afaritarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabiltza. Nahiago dugu Usurbilgoa eta euskalduna izatea. Interesatuak deitu 676355635 telefonora.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Hala bada, pasa zaitez Udarregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.

#### Lan-eskaintzak

- Herriko emakume euskaldun bat eskaintzen da pertsona helduak eta gaixoak zaintzeko. Ordutegi malgua (egunez zein gauez) eta prezio ekonomikoak. 687348223.
-Emakume esperientziduna eta erreferentziekin eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123
-Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 626344882.
- Neska bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile aritzeko. Gidabaimena eta disponibilitate osoa. 618722117.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrak ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltseritza lanetan aritzeko, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, arratsaldez, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. Telefono zenbakia: 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziduna. 658107757
- 23 urteko mutila, Usurbilen lan bila dabil barrako zerbitzari edo sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko urte osorako. Lanean berehala hasteko: 622 065 461 (Alex).
- Neska bat, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko prest, goizez 8:00-15:00 artean. 679 742 413.
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
-Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
-Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
-Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
-Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. 656446835.
-Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
-Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
-Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646 717 676.
-Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943 368 574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620 185 927.
-Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685 716 774.
-Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
-Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
-Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

### Bestelakoak / Galdutakoak

- Urtarrilaren 16an Andatza mendian (Puelako bidean) mendiko txamarra mutilarena, urdin iluna, galdu dut. 657702038.
- Umea eramateko "mendiko motxila" erosiko nuke. 647973854.
- Artzabalgo erreka ondoko banku batean patinete bat aurkitu genuen Errege egunean. 669353942.
-Bizikletako guante luzeak galdu ditut, kaxkoa eta tren geltokia artean. Topatu badituzu, deitu hona 634425787 (Borja) edo Bordatxora eraman.
-Mutil baten polar marroi bat galdu dut. 687406209.
-5 plazako Roller karabana bat daukagu salgai abantzea eta gainerako akzesorioekin. 3500 euro. Interesatuak deitu 676453176 zenbakira.
- Hemengo intxaurrak salgai, prezio onean. Telf: 943 67 11 60. Edurne.
- Administrazioko perfil guztiak eta EGA prestatzeko klase partikularrak ematen ditut. 656 723 650 (Jorge).
- Gurpildun aulki bat daukagu. Behar duen edozeini emango genioke. 943363201.
- Bugaboo markako umeentzako kotxea daukat salgai. Kapazoa, silla, burbuja eta zakutxoarekin. 616586851
- Su-egurra salgai modu onean. 689937338 Jesus Mari.
- 7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke. 617 802 088.
- Flex markako ohe artikulatua eta latex koltxoia salgai. 700 euro. 667521874
- Wii kontsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiak kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Kontsola ez da irekitzen eta horrela, garantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
- Argazki zaharrak berritzen ditut. Bideoak montatzen ditut bai bideoarekin, bai argazkiekin DVD formatoan. 635729637
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkiak, mahaiak, kafe-makina,... 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzen erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173 466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220 925.



**Zorionak Imanol!** Urtarrilaren 30ean 10 urte beteko dituzu. Muxu handi bat etxekoen partez!



**Zorionak Paula!** Etxekoen partez, mila muxu! Asko maite zaitugu, amak, aitak eta Nahiak.



**Zorionak Unax eta Malen!** 7 urte bete dituzue. Txintxo portatu eta muxu handi bana etxeko guztien partez.



**Zorionak Inge!** Urtarrilaren 26an 3 urte egingo dituzu! Txokolatezko muxuak etxeko guztien partez! Zorionak zuri...



**Zorionak Iñaki!** Urtarrilaren 23an egin zenituen 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partez. Ondo pasa!

### Hildakoak



**Pepita Iceta Iñarra** urtarrilaren 21ean hil zen, 83 urterekin

**Oharrak, zorion agurrak, jaio edo hildakoen** berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 12:00etan.
**erredakzioa@noaua.com**
** Jaiotzen datuak Usurbilgo Bake Epaitegian bakarrik hartzen ditugu.*

# AGINAGAKO Herri Eskola

## Eskola bizirik, Agiña bizirik!




·2-12 urte bitartekoentzat euskarazko irakaskuntza eskaintza zabala doan: ingelesa 3 urtetik aurrera, musika, internet gela guztietan, heziketa bereziko irakasle espezializatuen zerbitzua...

·Jantoki zerbitzua.

·Eskola-txikien artean koordinatutako proiektu konstruktibismoan oinarrituz.

·Eskola-txikien arteko elkarbizitza: irteerak, antzerkiak, kirola...

Usurbilgo Udala

baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

AGINAGAKO HERRI IKASTETXEA

Erriberako Kalea 7

20170 AGINAGA

Tel. 943 372044
Faxa: 943 372044

012261aa@hezkuntza.net

**Izena emateko epea:** **urtarrilaren 31tik otsailaren 10arte.**

**ATE IREKIAK:** otsailak 3, 9:30etik-17:00etara

# UDARREGI IKASTOLA

PARTAIDE IKASTOLAK

*Udarregi ikastolak zera eskeintzen dizuete:*

- 0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Balore eta jarreren lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- Irakaskutza Eleanitza: D eredua; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera Lehen Hezkuntzaren 3. mailatik aurrera eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Orientazio Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Heziketa Behar Bereziak dituztenentzat Laguntza Gela.
- Hizkuntzetarako irakasle espezialistak.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologiak: Informatika, Internet eta Ikus-entzunezkoak.
- Garraioa auzo guztietara.
- Jangela: dieta orekatuak eta osatuak. Haur Eskola (0 - 3) janari ekologikoa.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, dantza.
- Ikasleen Goizeko Zaintza: 08:00etatik 09:00etara.

42 urteko esperientzia Usurbilen.

## Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)

Urtarrilaren 31tik otsailaren 11ra

**HAUR HEZKUNTZA:** 3 - 6

**LEHEN HEZKUNTZA:** 6 - 12

**DBH:** 12 - 16


**943 361 216**

**Udarregi Ikastola**

Gernika ibilbidea. USURBIL

www.udarregi.com

www.udarregi.mundua.com